**2021eko AZAROAREN 24ko OSOKO BILKURAKO AKTA.**

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-11-24.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:
EH BILDU
José Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki
HERRIRAKO
José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre
ATXIKI GABEKO ZINEGOTZIA
Josu Iratzoki Agirre

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:
Julen Errandonea Martin
Germán Castillo Lazcanotegui

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:
Estibaliz Pinacho Olaciregui

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

**1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.**

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/11/10). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

**ACTA DE PLENO DE 24 DE NOVIEMBRE DE 2021.**

Lugar: Casa Consistorial de Bera.
Día: 24-11-2021.
Hora comienzo: 19:30.
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

ASISTEN:
EH BILDU
José Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki
HERRIRAKO
José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre
CONCEJAL NO ADSCRITO
Josu Iratzoki Agirre

AUSENCIAS JUSTIFICADAS:
Julen Errandonea Martin
Germán Castillo Lazcanotegui

AUSENCIAS SIN JUSTIFICAR PREVIAMENTE:
Estibaliz Pinacho Olaciregui

ALCALDE (preside la sesión):
Aitor Elexpuru Egaña

SECRETARIO: Miguel José Belarra Tellechea, levanta acta del acto.

ASUNTOS TRATADOS (incluidos en el Orden del Día de la convocatoria realizada al efecto):

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

Pregunta el Alcalde si alguno/a de los/las concejales/as desea hacer alguna observación al acta de la sesión anterior (10/11/2021), repartida con la convocatoria. No se ha manifestado ninguna, aprobándose el acta **por unanimidad**.

**2. 7. POLIGONOKO 301. PARTZELAKO (ITZEA KARRIKA, 4) XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Ikusirik:

- 7. poligonoko 301. partzelako —Itzea karrika, 4— xehetasun azterlana, etxebizitza-blokeko eraikinaren iparraldeko fatxadaren lerrokadurak berriz zehaztea helburu, igogailu bat jarri ahal izateko, arkitektura-oztopoak kentzea xede. Sustatazailea Comunidad de Propietarios de Itzea 4 da. Dokumentua XXX arkitekto teknikoak idatzi zuen.

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, 2021eko abuztuaren 27an egindako txostena.

- Udal idazkariak 2021eko irailaren 14an egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela irailaren 14ko 269/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarkiak argitaratuz NAOn, prentsan eta iragarki oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian ez zela alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorriz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespena ematea 7. poligonoko 301. partzelako —Itzea karrika, 4— xehetasun azterlanari.

**2.- ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA 301 DEL POLÍGONO 7 (ITZEA KARRIKA, 4). APROBACIÓN DEFINITIVA.**

Visto:

- El Estudio de Detalle de la parcela 301 del polígono 7 —Itzea karrika, 4—, para redefinir las alineaciones de la fachada norte del edifico del bloque de viviendas para poder instalar un ascensor, con el objetivo final de suprimir las barreras arquitectónicas. La promotora es la Comunidad de Propietarios de Itzea 4. El documento está redactado por XXX, arquitecto técnico.

- El informe técnico emitido por la arquitecta de Nasuvinsa, asesora del Ayuntamiento, el 27 de agosto de 2021.

- El informe jurídico emitido por el secretario municipal el 14 de septiembre de 2021.

Teniendo en cuenta que:

- El documento se aprobó inicialmente por Resolución de Alcaldía 269/2021, de 14 de septiembre.

- El expediente se sometió a exposición pública mediante publicación de anuncios en el BON, prensa y tablón de anuncios.

- No se presentaron alegaciones durante el periodo de exposición pública.

De conformidad con lo establecido por los artículos 63, 72 y 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, que aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela 301 del polígono 7 — Itzea karrika, 4—.

2. Behin betiko onespen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

2.- Publicar esta aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Navarra.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari, eta ohartaraztea 10 eguneko epea duela Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituen urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuaren 9.2 c) artikuluak eskatzen duen informazio geografiko bektoriala aurkezteko.

3.- Notificar este acuerdo a la promotora, advirtiéndole que dispone de un plazo de 10 días para presentar la información geográfica vectorial requerida por el artículo 9.2 c) del Decreto Foral 253/2019, de 16 de octubre, por el que se regula el Registro de Planeamiento de Navarra y el formato de presentación de los instrumentos de planificación urbanística y territorial de Navarra.

4. Erabaki hau helaraztea, onartutako agiriarekin, aurkezten den informazio geografiko bektorialarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari, gehienez ere 10 eguneko epean.

4.- Trasladar este acuerdo, junto con el documento aprobado, la información geográfica vectorial aportada y los informes técnicos emitidos, al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda, Paisaje y Proyectos Estratégicos del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de 10 días.

**3. 2021/11 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA. APARTEKO KREDITUA (ENPRESA PUBLIKOAREN KAPITAL SOZIALA). HASIERAKO ONESPENA.**

**3.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 2021/11. CRÉDITO EXTRAORDINARIO (CAPITAL SOCIAL EMPRESA PÚBLICA). APROBACIÓN INICIAL.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

El alcalde explica el expediente y el secretario el procedimiento, tras lo cual se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik:

Visto:

- Udala administrazio-espedientea izapidetzen ari dela kapital osoa Udalarena duen merkataritza-sozietatea eratzeko, eta kapital sozialaz hornitu behar duela sozietatea.

- Que el Ayuntamiento está tramitando expediente administrativo para la constitución de la sociedad mercantil de capital íntegramente municipal, a la que debe dotar de capital social.

- Martxoaren 18ko 68/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2020ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Que por Resolución de Alcaldía 68/2021, de 18 de marzo, se aprobó la liquidación del Presupuesto de 2020.

- Kontu-hartzaileak 2021eko azaroaren 18an egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu

- Que el informe emitido por Intervención el día 18 de noviembre de 2021 manifiesta que es preciso tramitar expediente

behar dela, ezohiko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3420-85090. Kirol-instalazioak kudeatzeko enpresa publikoaren kapital soziala. 3.300,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 3.300,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 3.300,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2021/11 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**4. TOKIKO MERKATARITZA-SOZIETATE BAT SORTZEA, %100EKO UDAL KAPITALA IZANGO DUENA, BERAKO KIROL INSTALAZIOEN**

de modificación presupuestaria, crédito extraordinario, para la siguiente partida de gastos:

1-3420-85090. Capital social empresa pública gestión instalaciones deportivas. 3.300,00 €.
Importe total, 3.300,00 €.

- Que en el citado informe se propone su financiación con cargo a la partida 1-87000, Remanente de Tesorería para gastos generales, por importe de 3.300,00 €.

De conformidad con lo establecido en los artículos 202, 213 y 214 de la Ley Foral 2/1995, de Haciendas Locales de Navarra y en la Base de Ejecución 9ª del Presupuesto en vigor,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria nº 2021/11, crédito extraordinario, referenciado.

2.- Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el tablón de anuncios municipal, a fin de que quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones.

3.- Advertir que, si en el periodo de exposición pública no se formularan reclamaciones, el acuerdo de aprobación inicial se entenderá aprobado definitivamente, entrando en vigor una vez transcurrido el período de exposición pública.

Si se formularan reclamaciones o alegaciones, el Pleno deberá adoptar acuerdo expreso relativo a la resolución de aquellas y a la aprobación definitiva de la modificación propuesta, que entrará en vigor una vez publicado el texto definitivo en el tablón de anuncios municipal.

**4.- CREACIÓN DE UNA SOCIEDAD MERCANTIL LOCAL DE CAPITAL 100% MUNICIPAL COMO FORMA DE GESTIÓN DIRECTA DEL SERVICIO DE**

**ZERBITZUA ZUZENEAN KUDEATZEKO. ESPEDIENTEAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Ikusirik:

- Berako Udalak, 2021eko urriaren 7an egin ohiko osoko bilkura berezian, erabaki zuela hasiera batean onestea kapital osoa publikoa duen merkataritza-sozietate bat sortzeko memoria eta estatutuen proiektua.

- 2021eko urriaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (239. zk.) argitaratutako iragarkiaren bidez, memoria eta estatutuen proiektua 30 egun naturaleko epean jendaurrean jarri zirela, eta ez dela alegaziorik aurkeztu.

- Kontu-hartzailearen txostena, 2021eko azaroaren 18koa.

Kontuan hartuta espedienteak bete egin dituela Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2 f) eta 85.2 artikuluetan ezarritako izapideak,

**aho batez** (arauz eskatzen den quoruma) ERABAKITZEN DA:

1. "SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK, S.L" izeneko udal kapital osoko merkataritza-sozietatea eratzeko administrazio-espedientea behin betiko onestea. Espediente hori espedientean behar bezala izapidetuta jasota dauden eta behin betiko onetsi diren memoria eta estatutuen arabera egingo da.

2. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari

**LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS DE BERA. APROBACIÓN DEFINITIVA DEL EXPEDIENTE.**

Visto:

- Que el Pleno del Ayuntamiento de Bera, en sesión extraordinaria celebrada el día 7 de octubre de 2021, acordó aprobar inicialmente la memoria y los estatutos para la creación de una sociedad mercantil de capital íntegramente municipal.

- Que mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Navarra nº 239, de 14 de octubre de 2021, se procedió a la exposición pública de la memoria y el proyecto de estatutos por plazo de 30 días naturales, y no se ha presentado ninguna alegación.

- El informe de Intervención, de 18 de noviembre de 2021.

Teniendo en cuenta que el expediente ha cumplido la tramitación establecida en el artículo 97 del Real Decreto Legislativo 781/1986, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, y los artículos 22.2 f) y 85.2 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases del Régimen Local,

**por unanimidad** (quorum reglamentariamente exigido) SE ACUERDA:

1.- Aprobar definitivamente el expediente administrativo para la constitución de la sociedad mercantil de capital íntegramente municipal de este Ayuntamiento denominada "SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK, S.L", que se realizará con arreglo a la memoria y estatutos que, debidamente diligenciados, obran en el expediente y quedan definitivamente aprobados.

2.- Publicar este acuerdo en el Boletín

Ofizialean argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

3. "SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK, S.L" sozietateari 3.300 euroko kapital soziala ematea. Kapital hori 110 partaidetza sozial zatiezin eta metagarritan banatuko da, 30 euroko balio nominalekoa bakoitza, 1etik 110era zenbakituta, biak barne, eta Berako Udalak ordainduko dituenak oso-osorik.

4. Alkateari ahalmena ematea erabaki hau aplikatu eta garatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

5. "SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK, S.L" sozietateko Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea, Estatutuen 17. artikulua aplikatuz. Bertaratuek onartu egin dute eta honako hauek dira:

- Aitor Elexpuru Egaña jauna, Berako Udaleko alkate udalburua; batzordeburu izanen da.
- Julen Errandonea Martin jauna, Berako Udaleko zinegotzia.
- Maialen Chantre Irazoki andrea, Berako Udaleko zinegotzia.
- Germán Castillo Lazcanotegui jauna, Berako Udaleko zinegotzia.
- José Antonio Oyarzabal Iribas jauna, Berako Udaleko zinegotzia.

6. Erabaki hau jakinaraztea Administrazio Kontseiluko kideei, dagozkion ondorioetarako.

**5. GESERLOCAL, S.L. ERAKUNDE INSTRUMENTAL ADIERAZTEA.**

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate

Oficial de Navarra, a los efectos oportunos.

3.- Dotar a la sociedad "SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK, S.L", de un capital social que ascenderá a la cantidad de 3.300 euros, dividido en 110 participaciones sociales, indivisibles y acumulables, de 30 euros de valor nominal cada una de ellas, numeradas correlativamente del 1 al 110, ambos inclusive, e íntegramente desembolsadas por el Ayuntamiento de Bera.

4.- Facultar a la Alcaldía para la firma de cuanta documentación fuera preciso suscribir en aplicación y desarrollo del presente acuerdo.

5.- Nombrar a los miembros del Consejo de Administración de la sociedad "SASTRAKO KIROL ZERBITZUAK, S.L", en aplicación del artículo 17 de los Estatutos, quienes presentes aceptan y que son los siguientes:

- Don Aitor Elexpuru Egaña, alcalde-presidente del Ayuntamiento de Bera, quien ostentará el cargo de presidente.
- Don Julen Errandonea Martin, concejal del Ayuntamiento de Bera.
- Doña Maialen Chantre Irazoki, concejala del Ayuntamiento de Bera.
- Don Germán Castillo Lazcanotegui, concejal del Ayuntamiento de Bera.
- Don José Antonio Oyarzabal Iribas, concejal del Ayuntamiento de Bera.

6.- Notificar el presente acuerdo a los miembros del Consejo de Administración, a los efectos oportunos.

**5.- DECLARACIÓN DE GESERLOCAL, S.L. COMO ENTE INSTRUMENTAL.**

Geserlocal S.L es una sociedad mercantil, creada y constituida por la FNMC y los Ayuntamientos de Sangüesa, Olite y Estella, para prestación del servicio de recaudación ejecutiva a las entidades locales de Navarra. En la actualidad Geserlocal viene desarrollando para estas entidades otros

horiei. NUKFk sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie.

Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren araberako esleitze akordioen bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzaileei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea, sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.

2.- NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute sozietatearen gaineko kontrola.

3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean.

Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

servicios complementarios incluidos en su objeto social. La FNMC posee el 97% del capital y el 3% restante pertenece a tres municipios citados.

Durante este tiempo Geserlocal ha venido prestando estos servicios a las entidades locales de Navarra en virtud de acuerdos de adjudicación adoptados conforme a la normativa de contratación.

Teniendo en cuenta la normativa vigente de contratación y las previsiones existentes sobre poderes adjudicadores y entes instrumentales, en especial la Directiva 24/2014, sobre Contratación Pública y Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos de Navarra, se considera posible la atribución a esta Sociedad de la condición de ente instrumental, además de respecto de los ayuntamientos que participan directamente en su capital, de las entidades locales pertenecientes a la FNMC como titular mayoritario de la sociedad. A tal efecto se cumplen las condiciones exigidas para ello:

1.- La totalidad de su capital es público.

2.- Concurrencia de un control conjunto de la Sociedad por la FNMC y de las entidades locales asociadas a esta entidad, a través de la misma.

3.- Geserlocal realiza la parte esencial de su actividad para las entidades locales respecto de las que ostente la atribución de medio.

En este sentido ha informado la Junta de Contratación Pública de Navarra, en su informe 1/2021.

Teniendo en cuenta lo anterior, la Comisión Ejecutiva de la FNMC, acordó en su sesión de 14 de septiembre atribuir a Geserlocal la condición de ente instrumental de las entidades locales asociadas a la misma que así lo acuerden.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Geserlocal S.L. Berako Udalaren erakunde instrumental deklaratzea aipaturiko Foru Legearen 8. artikuluak xedatutakoaren ondorioetarako.

2. Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.

3. Erabaki hau NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

En consecuencia, conforme a lo dispuesto en el artículo 8.2.d) de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos de Navarra,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Declarar a Geserlocal, S.L como ente instrumental del Ayuntamiento de Bera a efectos de lo dispuesto en el artículo 8 de la precitada Ley Foral.

2.- Declarar que el ámbito al que se pueden circunscribir los encargos que se realicen sean las prestaciones correspondientes a la recaudación ejecutiva, gestión de multas, contabilidad, así como otras que encajen en su objeto social.

3.- Notificar el presente Acuerdo a la FNMC y Geserlocal, y proceder a su publicación en el Portal de Contratación de Navarra.

**6. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO “KANPO-LANA” PROGRAMAN IZENA EMATEA.**

Alkateak azaldu du Hezkuntza Departamentuaren “Kanpo Lana” programa. Horren helburua da elkarbizitzarako kaltegarriak edo kontrakoak diren jarduerak egin dituzten ikasleen klasera joateko eskubidea ordezkatzea ekimen horri atxikitako erakundeetan gizarte-jarduerak egiteagatik .

Ikastetxeetan bizikidetza aldatzeagatik ikasleei ezarritako zehapenek ez dute beti nahi den eragina izaten ondorengo portaeran. “Kanpo Lana” programak elementu positibo bat sartzen du jokabide horiek zuzentzeko prozeduran, eta ikasleei aukera ematen die erakunde laguntzaileetakoren batean laguntzeko, beren erantzukizun pertsonala indartuko duten, gizartearentzat baliagarriak direla sentiaraziko dieten eta ikasteko motibatuko dituzten gizarte-jarduerak eginez, etorkizunerako orientatuz.

**6.- INSCRIPCIÓN EN EL PROGRAMA “TIEMPO FUERA” DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN.**

El alcalde explica el programa “Tiempo Fuera” del Departamento de Educación, cuyo objetivo es sustituir la suspensión del derecho de asistencia a clase del alumnado que ha incurrido en actuaciones contrarias o gravemente perjudiciales para la convivencia de los centros por la realización de actividades sociales en las entidades adheridas a dicha iniciativa.

Las sanciones impuestas al alumnado que protagoniza alteraciones de la convivencia en los centros no siempre tiene el efecto deseado en su comportamiento posterior. El programa “Tiempo Fuera” introduce un elemento positivo en el procedimiento corrector de esas conductas, ofreciendo al alumnado la posibilidad de colaborar en alguna de las entidades colaboradoras realizando actividades sociales que potencien su responsabilidad personal, les haga sentirse útiles a la sociedad e incluso les motiven para

el estudio, orientándoles en su futuro.

Gaia eztabaidatu ondoren,

**aho batez** ERABAKITZEN DA:

1. Berako Udalaren izena ematea formalizatzea “Kanpo Lana” programan.

2. Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari.

Debatido el asunto,

**por unanimidad** SE ACUERDA:

1.- Formalizar la inscripción del Ayuntamiento de Bera en el programa “Tiempo Fuera”.

2.- Notificar el presente Acuerdo al Departamento de Educación del Gobierno de Navarra.

**7. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Alkateak aurkeztu ondoren, adierazpen hau ONTESI DA **aho batez**:

“2003tik aurrera, emakumeonganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 101 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2021ean zehar erail dituzten Erika Tavares, Conchi Gonzalez, Aintzane Pujana, Maria Pilar Berrio Jimenez eta Miarritzeko 75 urteko bizilaguna.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, izebergaren punta diren erailketa hauetaz gain, ohikoak bilakatu direla gizonezkoek taldean egiten dituzten bortxaketei buruzko salaketa publikoak. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Gaurko egunean ere, talde hauen lana eta ezinbestekotasuna azpimarratu behar dugu.

**7.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL: 25 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES.**

Tras su presentación por el alcalde, por **por unanimidad** SE APRUEBA la siguiente declaración:

“Desde 2003, cuando se empezaron a recoger datos sobre violencia hacia las mujeres, 101 mujeres y 11 niños han sido asesinados en Euskal Herria. Detrás de este número inaceptable hay nombres y existencias. Proyectos de vida segados. Queremos conservar en la memoria, especialmente, a Erika Tavares, Conchi González, Aintzane Pujana, María Pilar Berrio Jiménez y la vecina de Biarritz de 75 años que han sido asesinadas a lo largo de 2021.

En este año también nos gustaría mencionar que, además de estos asesinatos que son la punta del iceberg, han sido muchas las denuncias públicas sobre violaciones de grupos de hombres. Sin embargo, ante cada agresión, un organizado Movimiento Feminista ha salido a la calle ha denunciarlos. También hoy, debemos destacar el trabajo y lo imprescindible de estos grupos.

Urte luze hauetako lana izan da Indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz egindako makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Istanbulgo Hitzarmena ekarri nahi dugu gogora, urte luzeetan zehar Mugimendu Feministak egindako Indarkeriaren ikuspegi zabalpena bildu zuen lehen tresna loteslea. Hitzez hitz esaten du "emakumearen aurkako indarkeriagatik" ulertu beharko dela giza eskubideen urraketa bat eta emakumeen aurkako diskriminazio modu bat, eta generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak izendatuko direla, emakumeentzat kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak dakartzatenak edo eragin ditzaketenak, ekintza horiek egiteko mehatxuak barne, hertsapena edo askatasuna arbitrarioki kentzea bizitza publikoan edo pribatuan.

Azaroaren 25ean, nazioarteko tresna lotesle hau aintzat hartuta, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela adierazteko eguna da, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela esatekoa. Bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.

Indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, jendartean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; publizistek eta mass-mediek emakumeen gorputzari ematen dieten erabilerak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta,

Quitarle la máscara a la Violencia ha sido el resultado de largos años de trabajo. No es una cuestión aislada. Sino la consecuencia de un sólido sistema patriarcal. La macro-encuesta sobre las violencias machistas arrojó un dato grave: una de cada dos mujeres ha sufrido violencia machista a lo largo de su vida.

Queremos recordar el Convenio de Estambul, el primer instrumento vinculante que recogió la visión ampliada por el Movimiento Feminista sobre la Violencia. Dice textualmente que por “violencia contra las mujeres” se deberá entender una violación de los derechos humanos y una forma de discriminación contra las mujeres, y designará todos los actos de violencia basados en el género que implican o pueden implicar para las mujeres daños o sufrimientos de naturaleza física, sexual, psicológica o económica, incluidas las amenazas de realizar dichos actos, la coacción o la privación arbitraria de libertad, en la vida pública o privada.

El 25 de noviembre, con este instrumento internacional vinculante, es un día para expresar nuestra oposición a todas las formas de violencia contra las mujeres y a todos los agentes que la generan. Porque estamos a favor de construir vidas libres, seguras y soberanas.

Es un día para seguir identificando los diferentes aspectos de la violencia machista, empezando por los más sutiles y más normalizados en la sociedad, como los tocamientos; las obscenidades verbales; los usos que publicistas y mass-media dan al cuerpo de las mujeres; los mensajes y expresiones sexistas; la vestimenta, el control del uso de redes sociales o de las compañías, las dificultades para ocupar libremente el espacio público (patios escolares, parques) o decisiones administrativas que atentan directamente a la igualdad entre mujeres y hombres. En un segundo estadio habría agresiones sexuales y físicas y, en el marco

esparrurik bortitzenean, erailketak.

"Normaltasunera" bueltatzen ari garela zabaltzen ari den egun hauetan, Indarkeria Matxista pairatzen duten horientzat, ordea, ospatzeko normaltasunik ez dagoela adierazi beharrean gaude.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, Berako Udaletik horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatzeko konpromisoa hartu behar dugu, berdintasun-unitateak sustatuz eta haiei laguntza eskainiz, berdintasun-teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz hala nola, emakumeen etxeak eta txokoak, ahalduntze-eskolak, jai parekideak eta abar.

Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza; beti ere, indarkeria mota hau pairatzen duten emakumeen ahalduntzea helburu duten ikuspuntu batetik. Horretarako, instituzio publikoez gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da ezarritako protokoloekin lagundu dezaten, eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitezen.

Nabarmendu nahi dugu, azken aldian, sare sozialetan eta espazio publikoetan, kide feminista askoren kontrako jazarpen handia ari garela ikusten. Ez da kasualitatea. Espazio publikoa hartu eta diskurtso eraldatzaileak mahai gaineratzen dituzten emakume feminista hauek jazartzea, antolatutako gorroto eta indarkeria matxista kanpaina baten ondorioa da. Eremu digitalean gertatu diren jazarpen kasu hauek gutxitzera jo izan dugu, baina duten garrantzia eta emakume hauen jarduna

más violento, asesinatos.

En estos días de vuelta a la "normalidad", para quienes sufren la Violencia Machista, sin embargo, no hay normalidad para celebrar.

A cada una/o de nosotras/os nos corresponde cambiar esta situación, iniciándonos en las tareas cotidianas, actuando en nuestro entorno más cercano. Y en nuestro caso, desde el Ayuntamiento de Bera debemos comprometernos a activar los recursos técnicos, económicos y políticos necesarios para ello, promoviendo y apoyando las unidades de igualdad, favoreciendo la estabilidad o contratación de las técnicas de igualdad, o promoviendo espacios de participación de las mujeres como casas y rincones de mujeres, escuelas de empoderamiento, fiestas paritarias, etc.

Por todo ello, la clave está en la idoneidad de los mecanismos recogidos en los protocolos puestos en marcha ante episodios de violencia machista, siempre desde una perspectiva de empoderamiento de las mujeres que sufren este tipo de violencia. Para ello, además de las instituciones públicas, es necesaria la participación de personas expertas en la materia y de movimientos feministas que colaboren con los protocolos establecidos, y en definitiva, caminar hacia un futuro igualitario.

Queremos denunciar que, últimamente, estamos viendo una gran persecución contra muchas miembros de los movimientos feministas en las redes sociales y espacios públicos, No es casualidad. La persecución contra estas mujeres feministas que toman el espacio público y plantean discursos transformadores es el resultado de una campaña de odio y violencia machista organizada. En adelante, tenemos, también, que combatir estos casos de acoso en el ámbito

eteteko duen asmoa salatzeko garaia da. Horregatik, lerro hauek erabili nahi ditugu, espazio horietan dauden kideei haien lana eskertu eta alboan gaituztela esateko.

Mugimendu Feministak, egun honen bueltan antolatuko dituen mobilizazioetan eta ekimenetan parte hartzeko deia egiten amaitu nahi ditugu lerro hauek.

PROPOSAMENA

1. Berako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.

2. Berako Udal honek, indarkeria matxistan zuzen aritzen diren sail eta profesionalen arteko elkarlanaz eta instituzioen arteko koordinazio egokiaren errefortzuaz arduratuko da, betiere sistematizazioa eta arreta-ibilbidearen hedapen egokiak bermatuz.

3. Berako Udal honek larrialdietako alerta-mekanismoak indartuko ditu, larrialdietan erantzuna bizkortzeko eta bermatzeko.

4. Berako Udal honek Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.

5. Berako Udal honek indarkeria matxistarekin zerikusia duten baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, administratiboak nahiz judizialak, publikoak, doakoak eta ez diskriminatzaileak direla bermatzeko dei egiten du.

digital, pero es hora de denunciar su importancia y su intención de impedir la labor de estas mujeres. Por ello, queremos utilizar estas líneas para agradecer a los miembros de estos espacios su trabajo y decirles que las acompañamos.

Estas líneas queremos terminar haciendo un llamamiento a participar en las movilizaciones e iniciativas que el Movimiento Feminista va a organizar en torno de este día.

PROPUESTA

1.- El Ayuntamiento de Bera asume el protocolo de respuesta ante la violencia machista impulsada por la Marcha Mundial de las Mujeres.

2.- Este Ayuntamiento de Bera, velará por la colaboración entre los diferentes departamentos y profesionales implicados directamente contra la violencia machista y por el refuerzo de la adecuada coordinación interinstitucional, garantizando en todo caso su sistematización y el adecuado despliegue del itinerario de atención.

3.- El Ayuntamiento de Bera reforzará los mecanismos de alerta ante emergencias para agilizar y garantizar la respuesta en caso de emergencia.

4- El Ayuntamiento de Bera insta al Gobierno de Navarra y al Instituto Navarro para la Igualdad a incrementar las partidas presupuestarias en materia de igualdad de mujeres y hombres, reforzar de forma permanente las direcciones de igualdad y los juzgados especializados y comprometerse a revisar la legislación vigente.

5.- El Ayuntamiento de Bera hace un llamamiento a garantizar que todos los recursos, servicios y procedimientos relacionados con la violencia machista, sean administrativos o judiciales, sean públicos, gratuitos y no discriminatorios.

6. Erakunde honetatik, hau da, Beratik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.”.

**8. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B31/2021etik B35/2021 arte.

- Ebazpenak: 301/2021 zenbakiko Ebazpenetik (2021/10/19) 349/2021 zenbakiko Ebazpenera arte (2021/11/19).

**Gai zerrendatik kanpo,** presazkoa dela aho batez aitortu ostean, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau eztabaidatu da:

**2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA.**

Alkateak aurkeztu ondoren, adierazpen hau ONTESI DA **aho batez**:

“**Euskara lanabes, aro berrirantz.**

**Erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere, euskarak arnas berri.**

Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere

6.- Desde esta Institución queremos reiterar nuestro compromiso con la lucha feminista como principal vía e instrumento para construir una sociedad democrática sin violencia.”.

**8.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.**

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

- Bandos: números B31/2021 a B35/2021.

- Resoluciones: desde la Resolución nº 301/2021 (19/10/2021) hasta la nº 349/2021 (19/11/2021).

**Fuera del orden del día**, previa declaración de urgencia por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

**DECLARACIÓN PARA EL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA 2021.**

Tras su presentación por el alcalde, **por unanimidad** SE APRUEBA la siguiente declaración:

“**Euskara lanabes, aro berrirantz.**

**Erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere, euskarak arnas berri.**

Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere

indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itxaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaurgarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eransten dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikook eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetza publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak

indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itxaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaurgarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eransten dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikook eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetza publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak

BERAKO UDALA

herriko etxeko plaza, 1
31780 BERA
NAFARROA

tel. 948 630 005

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

ez gaituela beldurtu behar. Gai garela argiro erakusten ari garelako, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapen errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanez, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formaletakoa landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atseden eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izanen da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarriz eta eredugarritasuna erakutsiz.

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak…). Nekez bilatuko genuke esparru

ez gaituela beldurtu behar. Gai garela argiro erakusten ari garelako, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapen errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanez, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formaletakoa landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atseden eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izanen da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarriz eta eredugarritasuna erakutsiz.

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak…). Nekez bilatuko genuke esparru

egokiagorik gazteengana iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoa aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitezen.”.

**9. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:30ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

egokiagorik gazteengana iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoa aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitezen.”.

**9- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.**

No se formulan.

No habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión a las 20:30 horas, lo que yo, el secretario, certifico.

O.E. ALKATEA/ VºBº EL ALCALDE,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO,
Miguel J. Belarra Tellechea.